

# MAKIAVELOREN TXOSTENA

**EGILEAK: Joanex Artola, Julen Susperregi, Beñat Azkue  
eta Aitor Elorriaga**

## **Sarrera:**

Makiavelo pentsalari florentziarrak ederki deskribatzen du egikaritzeke zegoen erlazio sozial pre kapitalisten politikaren nolakotasuna; politika indar-korrelazio terminoetan pentsatzea, politika termino mordenoetan pentsatzea baita. Ordu arte, inkotzientea zen pentsaera politikoa, hau da, morala eta interes etiko determinatu batzuei erantzuten zion politikak edo aldaketa tresnak. Horregatik, Makiavelok irauli egiten du politikaren kontzepzio moralista hori. Honek, argiki erakusten du zein zen bere xedea eta nola erdietsi berau: bitartekoak helburuarekin konsonantzian joan behar dute, bitartekoen eraginkotasunak ahalbide baidezake helburua, bestela esanda: auzia ez da kokatzen helburuak justuak diren ala ez pentsatzean; aitzitik, auzia koordenada eraginkorretan edo nahi bada, pragmatikoetan datza. Horretara, Makiavelok dio boterea erabili/mantetzeko beharrezkoak diren tresnak helburuari berari erantzuten behar diotela koherentziaz. Nolabaiteko dualitate bat ezarriz une oro. Hau ongi ikus daiteke "Printzipea" liburuan, izan ere, Makiavelok esan ohi duen moduan, herria zure alde lerrokatu behar da -beldurraren bidez bada ere-, baina boteredunak ere bai. Horrela espresatzen da bere ikuspegia, kanpora begira modu batekoa izan behar da, -alegia formalki- ordea, errealki bestelako modu baten aritu behar zara. Beraz, aparentziaren eta faltsukeriaren apologia dual moduko bat errealizatzen duela ondoriozta dezakegu.

## **1. Zein da Printzearen helburua? Zein bitarteko aipatzen ditu egileak Printzeak boterea eskura dezan?**

Printzearen helburua estatua lortu, gobernatu eta ondoren eskuratutako estatu hau ahalik eta denbora gehien eskupean edukitzea da. Printze ideala nolakoa izango den eta printze ideala izateko beharrezkoak diren egitatea eta pentsaerak deskribatzen ditu Makiavelok. Bide ezberdinak ezaugarritzen ditu botere hori lortzeko eta mantentzeko. Hots: oinordekotzaz, beste herrialde bat okupatuaz, matxinada bitartez edo printzerria erosiaz. Gehien bat testuan aipatzen duena zera da, herriaren nahiekin/esperantzekin eta beldurrekin estrategikoki jolastu behar dela. Boterearen mantentzea ez da erlijioan oinarritutakoa. Kontrara, sinesmenen jarraipenez lortutakoa, edota ohorez eta odolez eskuratutakoa; boterearen

mantentzea termino politiko estrategikoa da. Ordurarte izandako pentsaerarekin alderatuz gero, guztiz desberdina eta iraultzailea da Makiaveloren boterearen tesia, eta ondorengo garaietan, gaur arte, ondorio zuzena izan du.

## **2. Zer egin behar du Printzeak boterea mantentzeko?**

Estatua mantentzeko puntu estrategikoetan koloniak sortzea garrantzitsua da. Koloniek miseria utziko den jende multzoa oso txikia da, eta ez dute indarrik izango Printzearen aurka egiteko. Gainera, altxamenduak ekiditeko metodo eraginkorrena da, barnetik askoz ere errazagoa baita halakoak indarra hartu baino lehen detektatzea eta deusezte. Printzea bertan bizi bada ere hango egoera hobe ezagutuko du, altxamendu posible horiek ekiditeko erraztasuna lortuz. Hau, gainera, oso eraginkorra izango da leinu bera ez duen herrialde bat okupatzen bada, herriari gertuagokoa irudituko baitzaio printzea, eta beraz konfiantza handiagoa izango baitu beregan. Bestalde, Makiavelok dio herrialde bati eusteko ez dagoela hau suntsitzea baino bide seguruagorik. Boterea errazago mantentzen da herriak beldurra badu. Beti aipatu legez, maitasuna izatea baino beldurra eduki behar herria delakoak agintari politikoari. Herrialde bat konkistatu ostean hau mantentzeko, printzea hiritarren bizitzan ahalik eta aldaketa gutxien egiten saiatu behar da, -ordena sozial eta kulturala- mantenduz. Aldaketak badaude, litekeena da herria printzearen aurka altxatzea eta suntsitzea.

## **3. Makiaveloren arabera, orokorrean nolako jokabidea izan behar du Printzeak boterea lortu eta mantentzeko? Planteamendu moralik egiten al du?**

Makiaveloren ustez printzeak ez du planteamendu moralik egin behar gobernatzeko garaian, eta gaiztakeria baliatu behar du beharrezkoa bada. Modu honetara eragin dezakeen beldurra erabilgarria da herritarrak bere aurka matxinatzea ekiditeko. Hala ere, gaiztakeria ez da erabili behar ez bada beharrezkoa, izan ere, helburuak bitartekoak justifikatzen ditu, baldin eta bitarteko

horiek helburura eramateko gaitasuna eta eraginkortasun materiala badute. Ez da egokia erabakiak maltzurkeriaz hartzea printzerria mantentzeko ez bada.

Laburbiduz, printzea hotza, estrategia eta eraginkorra izan behar dela esan daiteke, boterea lortu eta mantendu dezan.

#### **4. Taldearen iruzkina: Makiaveloren interesa eta gaur egungo errealitateekiko loturak**

Gaur egungo politikan, Makiavelok mahaigaineratzen dituen estrategiak jarraitzen dira. Edozein alderdi politikok estatuko administrazio boterea lortu nahi du eta gero bertan mantendu. Gaur egun ere, ez du inporta nola lortzen den boterea, moralaren gaintik dago boterea. Politikariek gezurrak, neurri errepresiboak... erabiltzen dituzte boterea lortu eta mantentzeko. Gainera, egungo politika-joko zelaiaren asmatzaile eta pentsalari derrigor eduki behar du gaurkotasuna eta pertinentzia, hain zuzen, premisa politikoak ez dira aldatu eta. Lehenago aipatu moduan, jarduteko era, erretorika eta abarrek, helburu bera dute finean: boterea. Boterearen gosea amaigabea den artean, horrela jarraituko duelarik politikaren nolakotasunak.

Joanex, Julen, Aitor eta Beñat.

2020/10/06